

Mugarik gabeko
Ekonomilariak



Economistas
sin Fronteras



ERRONKETAN OINARRITUTAKO LANKIDETZA-IKASKUNTZARI BURUZKO GIDA

“Ekonomia Sozial eta Solidarioa lantzen LHn eta Unibertsitatean”



Mugarik gabeko
Ekonomilariak



Economistas
sin Fronteras

Koordinazioa eta edukiak _ **Mugarik gabeko Ekonomilariak**

Materialen Sistematizazioa _ **Sorginlore Gizarte Elkartea**

Itzulpena_ **Bakun itzulpen eta argitalpen zerbitzuak, s.l.**

Diseinu eta maketazioa _ **Compogrup S.L.**

Azalako argazkiak _ **freepik**

Barrualdeko ikonoak _ **freepik**

Honakoak egin ditzakezu _



- **Partekatu** — partekatu, kopiatu eta birbanatu edozein bitarteko edo formatutan
- **Moldatu**— nahasi, eraldatu eta horretan oinarrituz sortu

Honako baldintzen arabera _



Aitortu — Aitortza egokia egin behar duzu, lizentziaren esteka eman behar duzu eta aldaketak egin diren adierazi behar duzu. Zentzuzko edozein modutan egin dezakezu hori, baina ez duzu aditzera eman behar lizentzia-emaileak zu edo zure erabilera onesten duenik.



EzKomertziala — Materiala ezin duzu erabili merkataritza-xedeetarako



PartekatuBerdin — Materiala nahasten, eraldatzen eta horretan oinarrituz sortzen baduzu, jatorrizkoaren lizentzia berarekin banatu beharko dituzu zure ekarpenak.

Lizentzia _

Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 3.0 Espainia (CC BY-NC-SA 3.0 ES)

* Material hori 2019ko azaroan osatu zen

Finantziatua_





Aurkibidea

Sarrera

- Mugarik gabeko Ekonomialariak 4
- Gure lana Lanbide Heziketan 4
- Sistematizazio honen helburuak 7

Erronketan oinarritutako ikaskuntza

- Metodologia 8
- Ikaskuntza hori nola aplikatu, Ekonomia Sozial eta Solidarioa bultzatzeko.. 9

Erronken deskribapena

- A) Argazki- eta bideo-lehiaketa 12
- B) Ekintzailtza-lehiaketa 13
- C) Irakasle-masterraren erronka 14
- D) Giza Eskubideei eta Ekonomia Sozial eta Solidarioari buruzko ekitaldiak 15
- E) Giza Eskubideei eta Erantzukizun Sozial Korporatiboari buruzko jarduera 17

Ikasleen proposamenak: zenbait adibide

- A) Garapen Jasangarrirako Helburuak eta Automozioa 20
- B) Ez ezazu arrastorik utzi 21
- C) Zapalduon Antzerkia eta Ekonomia Sozial eta Solidarioa 22
- D) Txotxintxo Munduan Koop. 23

Balorazioa

- Helburuen arabera 24
- Ikasleen balorazioa 28
- Ondorioak 30

Sarrera

■ MUGARIK GABEKO EKONOMIALARIAK

Mugarik gabeko Ekonomialariak (aurrerantzean MgE) elkarte independente bat da, akonfesionala eta apartidista, unibertsitateko hainbat irakaslek, ekonomialariak gehienak, 1997an sortua eta denetariko kide solidarioak dituena.

Gizartean aldaketak eragitea da gure helburu nagusia, hala egitura ekonomiko justu eta solidarioak lortzeko eta pobrezia eta desberdintasunak desagerrarazteko, giza eskubideetan oinarriturik betiere. Giza eskubideak eta bizitzaren jasangarritasuna bultzatzen dituena da gure garapen-eredua, eta horren alde egin dugu, egiten dugu eta egingo dugu apustu. Hauek dira gure lan-ildoak: a) Gizarte Eraldaketarako Hezkuntza (GEH), b) ekintzailertzan oinarritutako Ekonomia Sozial eta Solidarioa (ESS) eta c) Gizarte Erantzukizun Korporatiboa (GEK) eta finantza etikoak.

■ GURE LANA LANBIDE HEZIKETAN

Horiek horrela, MgEko kideok urteak daramatzagu lanean Lanbide Heziketako (aurrerantzean LH) zentroetan, ekonomia justuago bat bultzatuz, behar-beharrezkoa iruditzen baitzaigu gure helburuak hezkuntzaren alorrera eramatea, batez ere gure gazteak lan-mundurako eta ekintzailertzarako prestatzen dituzten ikastetxeetara, ESSren proposamena eredu egingarritzat hartu eta bertan gizarte- eta ingurumen-jasangarritasuna berma dezaten eta, hala, sustraiak proposamen erroturik erroturik, teoria eta praxia uztartzen dituzten guneak sortzeko gai izan daitezen.



MgEk Euskadin duen ordezkari-tza 2013-14 ikasturtean hasi zen LHn lan egiten, eta gure zeregina bi eremutan inplementatu da ordudunik: bai erdi-mailako zikloak ematen dituzten zentroetan, zuzenean, eta bai, modu osagarrian, goi-mailako zikloak ematen dituztenetan, LHko beste entitate laguntzaile batzuen bitartez.

LHko zentroetan zer lan egin behar genuen definitzen hasita, funtsezkoa izan da urte hauetan guztietan irakasleekin irun dugun harreman estua, horrek eduki, gune eta formatu egokienak identifikatzeko eta egokitzeko ahala eman baitigu. Horra guztiaren ondorioz, hona hemen gure ekimen guztien zerrenda:

Prestakuntza-saioak

- Ordu-bete edo bi orduko saioak, MgEko kideek ikasgelan emanak.
- Saio horiek estu lotuta zeuden eta daude “Enpresa eta Ekintzaile Ekimena” eta “Lan Mundurako Prestakuntza eta Orientazioa” modulu-tako eduki transbertsalekin, bai eta Administrazioa eta Kudeaketa, eta Merkataritza eta Marketina lanbide-arlo-tako prestakuntza-zikloekin ere.
- Gaiak:
 - Ekonomia Sozial eta Solidarioan oinarritutako ekintzailtza
 - Enpresa Erantzukizuna eta Giza Eskubideak
 - Finantza etikoak eta bestelako finantzaketa-moduak
 - Genero-ikuspegia aintzat hartzen duten komunikazio-ereduak
 - Kontsumo arduratsua
 - Garapen Jasangarrirako Helburuak (aurrerantzean GH) eta 2030 Agenda
 - Zerga-sistema eta paradisu fiskalak

“Jarri martxan, beste ekonomia baten alde: Ekonomia Sozial eta Solidarioa” on-line ikastaroa

- Prestakuntza-saioen jarduera osagarria.
- Helburua: gazteen prestakuntza bermatzea eta haien insertzio soziolaborala bultzatzea, prestakuntza-baliabideen bitartez eta gizarte-ekintzailtza-aren alorreko esperientzia errealak oinarri hartuta.

“Ekonomia arduratsu, zuzen eta solidario bateranzko urratsak” gida didaktikoa

- MgEk, urteen joanean, LHren alorrean sortu eta erabili dituen materialen sistematizazio-lana.
- Gida hiru unitatek osatzen dute: 1. Enpresa eta Giza Eskubideak, 2. ESSren ikuspegi-an oinarrituriko ekintzailtza, 3. Komunikazioa generoaren eta Giza Eskubideen ikuspegitik.
- Argitaratutadago, eta halanahidutene-k, hemen eskuratzeko aukera ere badago: https://ecosfron.org/wp-content/uploads/INDICE_AURKIBIDEA.pdf.

- Gida ikasgai hauetan erabiltzekoa da: Enpresa eta Ekintzaile Ekimena, Enpresa Ikasgelan, Enpresa Simulazioa, Erantzukizun Sozial Korporatiboa, Enpresa Komunikazioa eta Bezeroari Arreta, Lan Mundurako Prestakuntza eta Orientazioa.

Prestakuntza-praktikak ESSko entitateetan

- Lan Zentroetako Prestakuntzaren eta FP Dualaren esparruaren barruan.
- MgEk zubi-lana egiten du ikastetxeen eta praktikak egin nahi dituzten ikasleak hartzeko interesa duten ESSko elkarteetan artean.
- Praktikak egiten ari diren ikasleek beren gaitasun eta ezagutza eguneratuak eskaintzen dituzte, eta entitateek, berriz, enpresa errealak ezagutzeko aukera, ESSa alternatiba erreal eta jasagarria dela bertatik bertara ikusteko.

Bisitak EAEn ESSa aplikatzen duten entitateetara

- Zehatzago esateko, REASEko bazkideak diren eta Euskadiko Merkatu Soziala osatzen duten entitateetara, bai eta sustatu nahi diren gizarte- eta ingurumen-irizpideak betetzen dituzten beste batzuetara ere.
- Helburua: Ikasleei ESSren alorreko esperientzia praktikoen berri ematea, gaur egungo ekonomia-ereduaz bestelako alternatibak badaudela kontura daitezen.

Pertsona ekintzaileen bisitak ikasgelara

- Kolektibo zaurgarrienetako kideak (migratzaileak, emakumeak eta aniztasun funtzionala duten pertsonak) ikasgelara ekartzea da asmoa, halakoak ekintzaile izatera nola iritsi diren ikusteko.
- Helburua: ekintzailetza-esperientzien berri ematea, kulturen arteko bizikidetzaren sustatuz eta estereotipoak desmuntatuz.

Erronkak diseinatzea (hurrengo ataletan sakonduko dugu ekimen horretan)

- Zenbait modulu lankidetzaren metodologia eta proiektu eta/edo problemetan oinarritutakoarena erabiliz lantzeko proposamena.
- Irakasleekin elkarlanean, ikasleek berek diseinatu eta ziklo bakoitzera egokitu beharrekoak zer jardura diren identifikatu behar dira, neska-mutilek edukiak barnera eta konpetentzia tekniko, pertsonal eta sozialak, curriculumak aipatzen dituenak denak, martxan jar ditzaten, eta, aldi berean, gai izan daitezkeen ESSrekin eta Giza Garapen Jasagarriarekin (aurrerantzean GGJ) lotuta MgEk proposatzen dizkien erronkei aurre egiteko.

Gainera, beste entitate batzuekin lan egiteak gogoeta egin behar handiagoa ekarri du, bai eta ESSrekin lotutako proposamen gehiago egin eta zabaldu beharra ere, horrek LHrekin eta ekintzailetza sozialarekin zer-nolako loturak dituen hausnartzearekin batera. Zehatz esatera, honixe buruz ari gara:

- Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren ikuspegia LHn nola txertatu aztertzea.
- LHn GGJ nola landu eta hori erronketan oinarritutako metodologiaren bidez nola egin argitzeko proposamen didaktikoak (hurrengo ataletan sakonduko dugu proposamen horietan).
- Urratsbat programako pertsona dinamizatzailen prestakuntza, hartan dabilzan pertsona ekintzaileek ESSren printzipio eta irizpideekiko dituzten interesak bideratzeko.
- VIII. Ikasenpresa Azokan eta Ikasenpresa, LPO (Lanerako Prestakuntza eta Orientabideak) eta Tknika kongresuetan parte hartzea.
- EAEko LHko zentroetako irakasleentzako prestakuntza-saio eta -tailerrak, ESSren irizpideei jarraituz, Tknikak antolatuta.
- LHn ESSk izan behar lukeen ikuspegi transbertsalaren aurkezpena, Global Social Economic Forum delakoan.

■ SISTEMATIZAZIO HONEN HELBURUAK

Lan hau gorago aipatu dugun esku-hartze motan ardaztuko da: erronken diseinuan, zehatz esatera. Gureak oso baliabide soila, laburra eta praktikoa izateko asmoa du: MgEk alor honetan duen eskarmentutik abiatuta, helburua da LHko irakasleei eta LHn lan egiteko asmoa duten ikasleekin aritzen diren unibertsitate-irakasleei orientazio-lerro gutxi batzuk eskaintzea.

Lehenik eta behin, esku-hartze mota horren metodologia definitzen da dokumentuan, eta hura ESSren printzipioen arabera nola aplikatu beharko litzatekeen azaltzen. Horren ondoren, labur-labur deskribatzen dira dokumentuan bertan aipatzen diren erronka nagusiak. Gero, 4 lan aurkezten dira, ikasleek erronka horiei aurre egiteko prestatutako proposamenen adibide modura. Azkenik, ondorioak esplikatzen dira, bai MgErenak eta bai ikasleenak.

Erronketan oinarritutako lankidetza-ikaskuntza

■ METODOLOGIA

Erronketan oinarritutako lankidetza-ikaskuntzak bi iturri metodologiko ditu, bata bestearekin estu loturik daudenak: batetik, problema eta proiektuetan oinarritutako ikaskuntza, eta bestetik, lankidetza-ikaskuntza¹.

- Aurrenekoa, problema eta proiektuetan oinarritutako ikaskuntza, ildo konstruktibista bat da, eta printzipio nagusi bat du oinarri: lehenik eta behin, problema jakin bat formulatzen da, eta hortik abiatuta, partaideek ikaskuntza-prozesua zuzentzen dute, esperientzian eta eskarmentuan, diziplinartekotasunean, teoriaren eta praktikaren arteko loturetan, eta talde-lanean tinko oinarriturik. Metodologia aktibo bat da, beraz, eta lankidetza-ikaskuntzan ardazten da. Bederatzi dira metodologia horren onura nagusiak: pertsonak lan-mundurako prestatzea; haien motibazioa piztea; eskolan ikasitakoa eguneroko errealitatearekin lotzea; ezagutza eraikitzeke lankidetza-aukerak ematea; gizarte- eta komunikazio-trebetasunak fintzea; problemak ebazteko abileziak sustatzea; ikasleei zenbait diziplinaren artean zer-nolako loturak dauden ikusteko aukera eman eta diziplina horiek nola irun irakastea; bai eskolan eta bai komunitatean, bietan norberak zer egin dezakeen argitzea; ikasleen autoestimua handitzea eta norberaren ikaskuntza-indarguneak al bait gehien aprobetxatzea.



¹ Nagore Urreta Arrutiren master-amaierako lelean oinarritua: Propuesta para incorporar el enfoque de desarrollo humano sostenible en el módulo transversal de empresa e iniciativa emprendedora basada en la metodología de aprendizaje por proyectos y aprendizaje colaborativo (2015).

- Bigarrena, berriz, trebetasunak barneratzearekin dago lotuta, eta taldean egiten den lanaren ondorio da. Erantzukizun indibiduala, interdependentzia positiboa, lankidetzeta-trebetasunak, interakzio eragilea eta talde-prozesua: horiek dira bigarren ikaskuntza-mota horren giltzarriak. Sormena lantzen laguntzen digu, bai eta autoestimua hobetzen, balio kulturalak berreskuratzen eta mundua hobeto hautematen ere, eta desberdintasunak, demokratizazioa eta solidaritatea errespetatzen ere bai.

Erronketan oinarritutako ikaskuntzak, alde batetik, ziklo bakoitzari berariaz dagozkion ikaskuntza-helburu teknikoak betetzea errazten du, harekin lotutako edukiak aplikatu eta, beraz, eduki horiek etengabe interpretatu, ikertu, hausnartu eta eztabaidatu beharra dakarrenez gero. Bestetik, konpetentzia transbertsal estrategikoak landu beharra ere badakar, eta horrek subjektu kritikoak izateko prestatzen ditu ikasleak, eta gizartean parte hartzera eta ekintzaileak izatera bultzatzen.

Euskadiko Autonomia Erkidegoan, 2013-14 ikasturteaz geroztik, martxan da EHAZI eredua, hau da, Tknikak bultzatutako errendimendu handiko zikloen multzoa, erronketan oinarritutako lankidetzeta-ikaskuntzan guztiz ardaztua. Eredu horren xede nagusia gure gizarteak lan-eremuan ate-joka dituen erronkei aurre egitea da. Eta erronka horiek ederki asko identifikatuta dauzkagu, gainera: talde-lana, komunikaziorako gaitasuna, lidergoa, ikaskuntzaren alorreko autonomia, gaitasun kritikoa eta negoziatzekoa, gatazkak konpontzen jakitea, sormena, emaitza apartak lortzeko joera, berrikuntzen aldeko jarrera eta adimen emozionala.

Eredu horretan, ikasleak taldeka antolatzen dira, eta egoera gatazkatuak planteatzen zaizkie, hori erronka bat balitz bezala senti dezaten eta, hortik abiatuta, beharrezkoak diren ezaguerak bil ditzaten, ahalik eta soluziorik onenak emateko gai izateko.

Horretarako, ikaskuntzaren mekanika eta egituraketa berrinterpretatu beharra dago. Alde horretatik, ereduak ezaugarri hauek ditu: intermodularitatea, konpetentzia-garapenaren eboluzioaren ebaluazioa, ikaskuntza-guneak egokitzea eta zikloko irakasle-talde beregainak. Inolako zalantzarik gabe, irakaskuntza zuztarretik eraldatzea dakar eredua martxan jartzeak: alegia, eta zehatzago esateko, ikasgai magistrala baztertu eta, haren ordeztan, planteatzen diren problemak taldean ebatzea; orain arte nagusi izandako rola baztertu eta, haien ordeztan, ikasleak protagonista bihurtzea; ikaskuntza teknikoagoekin lotutako helburuak baztertu eta, haien ordeztan, azpimarra konpetentzien eta ikaskuntza transbertsalen garapenean jartzea.

■ IKASKUNTZA-MOTA HORI NOLA APLIKATU, EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOA BULTZATZEKO

Aurkeztu berri dugun ereduak hartaraturik, baina haren esparruaren barruan betiere, atzera ere LHren alorrean sentsibilizazio-lanari nola ekin planteatu behar genuke, hori bat baitator Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzaren premisekin; hau da: pertsona guztiak subjektutzat jo eta berrikuntza soziala, sormena, lankidetzeta eta mobilizazio soziala sustatu beharra.

MgEk, erronketan oinarritutako lankidetzeta-ikaskuntzaren metodologia hori LHn ezartzen hasia den Gizarte Eraldaketarako Hezkuntzan aplikatuz, koherentzia eta intzidentzia handiagoak bilatzen ditu Ekonomia Sozial eta Solidarioa ikasleen artean

zabaltzeko. Izan ere, ESSren eta GGJren oinarriko alderdiak zabaldu, gogoeta kritikoa sustatu, eta portaera etiko eta arduratsuak errotuko baditugu, gure esperientziek askoz aktiboagoak beharko dute izan nahitaez, eta ikasleek elkarrekin lan egin beharko dute, erronka sozialei aurre egiteko. Horrek gure motibazioa eta inplikazioa handitu beharra ere badakar, eta ESSren printzipioak eta ekonomia-eredu hori alternatiba erreala delako kontzientzia barneratu beharra ere bai. Subjektu politiko kritiko eta aktiboak heztea da kontua, gizarte justuago eta solidarioago bat eraikitzeari beren aletxoak ekarriko diotenak.

Ziklo eta modulu bakoitzak bere ikaskuntza-helburu tekniko espezifikoak baldin baditu ere, ESSren alorrean erronketan oinarritutako lankidetzaren arabera lan egiteko, beharrezkoa da beste ikaskuntza-helburu hauek ere aplikatzea:

1H. Gaur egungo ekonomia-sistema neoliberalaren oinarri eta ondorioez jabetzea.

2H. Enpresen martxa konparatzea eta gizartean nahiz ingurumenean zer-nolako inpaktua duten aztertzea.

3H. Ekonomia Sozial eta Solidarioaren printzipioak identifikatzea.

4H. Erronka sozialak identifikatzen jakitea eta haiei aurre egiteko bide positiboak zehaztea.

Zehar-kompetentziak estu lotuta daude Heziberri 2020 hezkuntza-esparruan planteatutakoekin. Hona hemen zehar-kompetentzia horiek nola mamitzen diren gurean:

- Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia.
 - Gatazkak konpontzea: erronkak identifikatzeko gaitasuna, informazio adierazgarria biltzekoa eta ideiak sortzekoa.
- Ekimenerako eta ekiteko espiriturako kompetentzia.
- Elkarbizitzarako kompetentzia.
 - Gizarte-erantzukizuna eta konpromiso zibila barneratuz joatearen aldeko jarrera izatea.
 - Taldean lan egiteko gaitasuna.
- Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia.

Oinarri horietan bermaturik, MgE 2015-16 ikasturtean hasi zen metodologia hori LHko zentroetan aplikatzen. Horretan, pauso hauek eman ohi ditugu:

- Erronka bera eta haren helburuak definitu irakasleekin batera, ikasmaita zein den aintzat hartuta.
 - ESS, erronka eta baliabideak aurkeztu, ikasleekin batera lantzeko. Erronkaren arabera, GGJk ESSrekin, 2030 Agendarekin, Giza Eskubideekin eta/edo GEKrekin zer-nolako loturak dituen azaldu.
 - Ikasleek erronka taldeka prestatu. Horretan, irakasleek eta MgEko kideek lagunduko diete.

- Aurkezpen eta hautapena.
- Saria eta/edo baliabideak banatu, martxan jartzeko.
- Martxan jarri eta/edo gizarteratu.

Zehatz-mehatz esateko, hona hemen LHrekin lotutako zer zentro eta entitatek parte hartu duten ESS erronketan oinarritutako lankidetzaz-ikaskuntzaren metodologia erabiliz irakasteko programa honetan:

- EASO Politeknikoa
- IES Xabier Zubiri Manteo BHI
- AEG Berrikuntza Profesionalen Eskola
- EHU-UPVko irakasle-masterra
- Teknikaren Urratsbat eta Ikasapresa programak (Lanbide Heziketarako eta Etengabeko Ikaskuntzarako Berrikuntza Zentroa, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak bultzatua).



Erronken deskribapena

■ ARGAZKI- ETA BIDEO-LEHIAKETA

• Helburuak:

- Ikasleen parte-hartzea sustatu eta ingurumenarekiko interesa piztea.
- Nagusi den ekonomia-sistemak ingurumenean duen inpaktuari buruzko hausnarketan sakontzea, eta beste kontsumo- eta garapen-eredu batzuk aztertzea, eredu gailenaren alternatibak diren aldetik.
- Eraldaketarako ekintza konkretu eta pertsonalak identifikatzea, hondakinen kudeaketari dagokionez batez ere.
- Sormena eta sentimena indartzea.
- Gizarte- eta ingurumen-kontzientzia lotzea arte-adierazpenarekin.

• Publikoa:

- Zentroa: EASO Politeknikoa.
- Zikloak: edozein prestakuntza-ziklotako ikasleei eskainia, bai erdi-mailako ziklokoiei eta bai goi-mailako ziklokoiei.

• Deskribapena:

Proposamena lehiaketa modura planteatu dugu 21 Eskola Agendaren barruan, eta, zehazki, Hondakinak Prebenitzeko Europako Astearekin lotuta dago.

Ikasleek banaka parte har dezakete lehiaketan, gehienez 3 bideo edo argazki bidaliz, edizio bakoitzean iragartzen den gaiari buruzkoak (bigarren edizioan, esate baterako, hondakinak nola murriztu, berrerabili eta birziklatu izan zen gaia, “Eta zuk, nola egiten duzu” izenburupean). Material guztiak originalak izango dira, sekula argitaratu eta beste lehiaketa batzuetan saritu gabeak.



Hautapena bi irizpideren arabera egingo da: edukia eta balio artistikoa. Horretarako, epaimahaia osatzen duten pertsonen lotura estua izango dute ingurumen-kontuekin, 21 Agendarekin eta arte-proiektuekin, eta MgEko ordezkari bat edo beste (zehazki, GGJrako sentsibilizazio-saileko norbait) eta zentroko zuzendaritzako norbait ere egongo dira tartean. Kategoria bakoitzean, aukeran emango da zer sari hautatu: edo hurrengo ikasturteko matrikula, edo bizikleta bat, edo garraio-bonua. Sariak ekitaldi ireki batean banatuko dira, zentroan bertan.

Lehiaketa honi 2014-15 ikasturtean ekin genion, eta azken edizioan 6 proposamen aurkeztu ziren.

■ EKINTZAILETZA-LEHIAKETA

• Helburuak:

- Ekonomia Sozial eta Solidarioaren printzipioak identifikatzea.
- Enpresa/produktua/zerbitzua hirukoteak gizartean eta ingurumenean zer-nolako inpaktu negatiboa duen aztertzeke gaitasuna hobetzea.
- GEKrekin lotutako neurriak identifikatzea.
- Canvas ereduaren gizarte-ikuspuntua aintzat hartuta aztertzeke gaitasunak garatzea.
- Elkarlanean proposatzea enpresa/produktua/zerbitzua hirukotearekin lotutako enpresa-eredu tradizionala gainditzeko alternatibak.
- Genero-ikuspegia txertatzea modu transbertsalean.

• Publikoa:

- Zentroa: EASO Politeknikoa.
- Ikasgaia: Enpresa eta Ekintzaile Ekimena.
- Zikloak: Osasun Larrialdia (Erdi-mailako Gradua), Haur Hezkuntza eta Aho-hortzetako Higienea (Goi-mailako Gradua).

• Deskribapena:

Lehiaketa bat egitea da kontua, enpresa-proiektuetan ESSren printzipioak sartu eta giza eskubideak nahiz ingurumena errespetatzearekin lotutakoak aintzat hartzeari buruzkoa, Giza Garapen Jasangarriaren Helburuak betetzen direla bermatzeko.

Ikasleek, taldeka jarrita, beren enpresa-proiektua aurkeztu beharko dute epearen barruan. Horretarako, ikerketa-baliabideen zerrenda bat ere izango dute, bai eta galdera batzuk ere, orientabide gisara, eta ESSri eta Mugarik gabeko Ekonomialariak elkarteari buruzko aurkezpen labur bat ere bai. Gainera, aurtengo ediziotik aurrera, ikasturteari ekin eta berehala, ikasle-irakasleok Canvas Soziala ereduaren ikasgelan bertan, eta talde bakoitzaren negozio-proposamenetik abiatuta, lantzeko aukera izango duzue, ESSren irizpideak praktikaren bitartez barneratu, eta hortik abiatuta, ikasleek beren negozio-plan jasangarria martxan jartzeko baliabideak izan ditzaten.

Lehiakideen artean, MgEk ekonomia justuago eta solidarioago baten alde ekarpen gehien egiten dutenen enpresa-ekimena sarituko du. Balorazioak aurrez erabaki eta lehiaketaren deialdian adierazitako irizpideen arabera egingo dira, bai ikasleek berek egindako fitxa-txosten baten bitartez, bai aurkezpen baten bitartez.

Irizpideak:

1. Negozio-proposamenak arazo sozial bati irtenbidea ematen dio
2. Bat dator ESSren printzipioekin
3. Finantzaketa-bide alternatiboak proposatzen ditu
4. Gizarte-erantzukizuna bultzatzen du, eta ekonomiak gizartean eta ingurumenean zer-nolako inpaktua duen aintzat hartzen.
5. Canvas Soziala ereduan oinarritzen da.
6. Genero-ikuspegia txertatzen du.
7. Kontsumo arduratsua bultzatzen du.

Saridunari 250 €-ko balioa duen txartel bat emango zaio, eta REAS Euskadiko, Saretuz-eko edota Bidezko Merkataritzako entitateetan erosketak egin ditzan.

Lehiaketa honi 2016-17 ikasturtean ekin genion, eta azken edizioan 5 proposamen aurkeztu ziren eta 50 lagunek parte hartu zuten.

■ IRAKASLE-MASTERRAREN ERRONKA

• Helburuak:

- Gaur egun –bai ekonomian eta bai hezkuntzan– nagusi den eredu hegemonikoaren kritikan sakontzea, erronketan oinarritutako lankidetzaz-ikaskuntzaren metodologiak GJHren eta ESSren garapenarekin zer-nolako loturak dituen hausnartuz.
- Metodologia hori Lanbide Heziketan eta, zenbaitetan, baita Bigarren Hezkuntzan nahiz Batxilergoan nola aplikatu aztertzeke proposamen praktiko bat definitzea denen artean.

• Publikoa:

- Zentroa: UPV – EHU.
- Titulua: Irakasleen Prestakuntza Unibertsitate Masterra. Espezialitatea: Giza eta Gizarte Zientziak.
- Ikasgaia: Ekonomiako Osagarriak Gizarte Zientzietarako.

• Deskribapena:

Taldeka proposamen didaktikoak aurkeztea da kontua, MgEren “Giza garapen iraunkorrerako lanbide-heziketa” proiektuarekin eta bertan azaltzen dugun erronken metodologiarekin bat etorri betiere, hezkuntza-zentroetan ESS eta GJH sustatzearen alde lan egiteko. Hona hemen proposamenen ezaugarriak:

- zentro gisara modu globalean lan egitea,
- erdi-mailako edo goi-mailako zikloen barruko ikasgai espezifikoko batean eta/edo DBH 4ko edota Batxilergoko 1. mailako curriculumetan ardaztea.
- proposamenen muina ikasgai transbertsalak izatea, eta ikasgai horiek Lanbide Heziketakoak, Lan Mundurako Prestakuntza eta Orientaziokoak eta Ekintzaile eta Enpresa Ekimenekoak izatea.

Horretarako, ikasleek Gipuzkoako Lanbide Heziketako zentro bat aukeratu beharko dute eta, hala badagokio, baita ziklo eta ikasgai bat ere, edota, bestela, DBHko edo Batxilergoko zentro bat eta, hala badagokio, baita ikasgai bat ere. MgEk elkartearen aurkezpen bat egingo du hasieran, eta labor-labor azalduko ditu ESSren eta GJHren nondik norako guztiak, bai eta erronka bera ere, eta proposamena lantzeko baliabideak ere emango ditu, ikasgelan lantzekoak izan litezkeen bestelako azalpenak ematearekin batera.

Erronka definitzen 2014-2015 ikasturtean hasi ginen ikasleekin batera. Ikasturte hartan, ikasle batek gaiari buruzko master-amaierako lan bat ere aurkeztu zuen: Giza garapen jasangarriaren ikuspegia proiektuko ikaskuntzako eta lankidetzatik ikaskuntzako metodologian oinarritzen den ekintzaile- eta enpresa-ekimeneko modulu transbertsalean txertatzeko ekimena.

Aurtengo ikasturtean hasita, hemen aurkeztutako edukia ematen hasi dira masterreko Ekonomiako Osagarriak Gizarte Zientzietarako ikasgaiaren barruan. 2018-2019 ikasturtean, 2030 Agenda eta GJHak Lanbide Heziketako curriculumeko ikasgai ez-transbertsaletan nola txertatu landu dute ikasleek, eta hori guztia unitate didaktikoen bitartez egin da. 5 proposamen aurkeztu dira eta 25 lagunek parte hartu dute.

■ GIZA ESKUBIDEEI ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOARI BURUZKO EKITALDIAK

• Helburuak:

- Ekonomia Sozial eta Solidarioaren printzipioen berri jakitea, eta ekonomia-eredu horrek Giza Eskubideekin eta Giza Garapen Jasangarriarekin zer-nolako loturak dituen ikastea.
- Zenbait produktuk eta zerbitzuk gizartean eta ingurumenean zer-nolako inpaktua duten hausnartzea modu kritiko eta praktikoan.
- Mobilizaziorako gaitasuna sustatzea.
- Kontzientziazio-ekimen jasangarri bat definitzea eta antolatzea denen artean.

• Publikoa:

- Zentroa: Xabier Zubiri - Manteo BHI).
- Ikasgaia: Harreman Publikoak eta Marketin Ekitaldien Antolakuntza.
- Zikloak: Marketina eta Publizitatea (Goi-mailako Gradua).

• **Deskribapena:**

“Giza garapen iraunkorrerako lanbide-heziketa” programaren barruan, zentroan ekitaldi bat antolatzea da kontua, giza eskubideek ekonomia sozial eta solidarioarekin zer-nolako loturak dituzten jakitera emateko.

Ikasleek, taldeka jarrita, beren proposamenak aurkeztuko diote MgEri. Horretarako, alde zuzenetik, saio bat egingo da ikasgelan, talde bakoitzak bere proposamenaren berri eman eta gaia testuinguruan jar dezan; gainera, proposamenak aurkezteko baliabideak ere emango dira. Horren ondoren, proposamenak prestatzeko fasean, MgEk propio sortuko duen taldearengana nahi bestetan jotzeko aukera izango dute ikasleek, zalantzak argitzeko eta beren proposamenean nondik nora jo argitzeko.

Proiektuetan, gutxienez, alderdi hauek landu beharko dira:

- Ekitaldiaren deskribapena eta zer helburu lortu nahi diren, zehatz-mehatz adieraziz proiektuak zer lotura duen Giza Eskubideekin, Ekonomia Sozial eta Solidarioarekin, eta Giza Garapen Jasangarriarekin.
- Zentroko ikaskideak nola mobilizatu esplikatzen duen azalpena, ekitaldian ahalik jende gehienak parte har dezan.
- Ekitaldiaren berri emateko plana.
- Ekitaldia jasangarria izateko kontuan hartuko diren neurrien azalpena.
- Aurrekontuaren xehetasunak:
- Ekonomia Sozial eta Solidarioarekin eta/edo Bidezko Merkataritzarekin lotura duten entitateetan egindako erosketak eta/edo kontratazioak lehenetsiko dira.
- Hala jakatu ezin bada, zorrotz-zorrotz aztertu eta justifikatu beharko da ea enpresa hornitzaileek gizarte- eta ingurumen-erantzukizuneko irizpideak betetzen dituzten.



Proposamenak onartu ondoren, proiektuak inplementatu eta martxan jarri beharko dira. Ekitaldirako beharrezkoak diren alderdien kudeaketari dagokionez, MgEk berak lagundu diezaieke ikasleei, eta espazioen, materialen, baliabideen, ekitaldian parte hartuko duten pertsonen eta antzeko kontuen inguruko aholkularitza eskaini. Sortzen diren zabalkunde-materialetan nahitaez jarri beharko dira MgEren, Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Donostiako Udalaren logoak. Hizkuntza eta irudi ez-sexistak erabiliko direla bermatu beharko da. Azkenik, gastu guztiak faktura bidez justifikatu behar dira.

Erronka honi 2014-2015 ikasturtean ekin genion, eta azken edizioako ekitaldiaren prestaketa-lanetan 13 lagunek parte hartu zuten.

■ GIZA ESKUBIDEEI ETA ERANTZUKIZUN SOZIAL KORPORATIBOARI BURUZKO JARDUERA

• Helburuak:

- Ekonomia Sozial eta Solidarioaren printzipioen berri jakitea, eta ekonomia-eredu horrek Giza Eskubideekin zer-nolako loturak dituen ikastea.
- Enpresen produktu eta zerbitzuen balio-kateei, haien antolakuntza-aldagai etiko eta kulturei, eta haien inpaktuari buruzko analisi konparatiboak egiteko gaitasunak hobetzea.
- GEKrekin lotutako neurriak identifikatzea.
- Talde-lan parte-hartzailea sustatzea.

• Publikoa:

- Zentroa: AEG Berrikuntza Profesionalen Eskola.
- Ikasgaia: Giza Baliabideak eta Erantzukizun Sozial Korporatiboa.
- Zikloak: Administrazioa eta Finantzak (Goi-mailako Gradua).

• Deskribapena:

Zentroan Giza Eskubideekin eta Erantzukizun Sozial Korporatiboarekin lotutako jarduera bat antolatzea da kontua, eta jarduera Giza Eskubideen nazioarteko egunean egitea. Edizioetako batean, ikasleek erakusketa bat antolatu zuten; beste batean, berriz, Zapalduon Antzerkia izeneko ekimena.



Erakusketa zentroko korridoreetan antolatu zen, ikasleen lanetan oinarriturik. Lanak hiru-enpresa mota hauei buruzkoak izan ziren:

- Giza Eskubideekin lotutako praxi txarrak dituzten enpresak (esaterako, multinazionalak).
- Erantzukizun Sozial Korporatiboan oinarritutako praxi onak dituzten enpresak.
- Ekonomia Sozial eta Solidarioaren alorreko enpresa txiki eta ertainak.

Hona hemen lanen xedeetako batzuk:

- Enpresa-mota identifikatzea: zergatiaren justifikazioa, datu gakoak, prentsan eta internetan zenbaterainoko presentzia duen...
- Enpresen praktikei buruz ikertzea, eta Giza Eskubideekin lotuta zer-nolako inpaktu soziala duten aztertzea.
- Enpresek interes-taldeetan jokatzeko duten moduaren alde on eta txarrak aztertzea.
- Erakusketa antolatzeko aurrekontua (kartelak, inprimaketa, euskarriak...).

Bigarren jarduerari dagokionez, GIZAT antzerki-taldeak lagundu zien ikasleei. Horretarako, dramatizazio-jolas, irudizko antzerki, kazetaritza-antzerki eta antzerki-forumaren bitartez, ESSren oinarrizko kontzeptu teorikoak landu ziren:

- Lehiakortasuna – lankidetzatza
- Enplegu prekarioa – enplegu duina
- Enpresa tradizionala – ESSn oinarritutako enpresa
- Kontsumismoa – kontsumo arduratsua
- Pobrezia energetikoa

Erronka hau 2014-2015 eta 2015-2016 ikasturteetan landu da, eta 11 lagunek parte hartu dute batez beste.

— — —

Ikasleen proposamenak: zenbait adibide

— — —

<p style="text-align: center;">GARAPEN JASANGARRIRAKO HELBURUAK ETA AUTOMOZIOA</p>	<p>Erronka honen barruan dago:</p> <p>Lanbide Heziketan Ekonomia Sozial Solidarioa eta Garapen Jasangarrirako Helburuak lantzeko proposamen didaktikoak sortzeko proiektua (irakasle-masterra).</p>
<p>Ideiaaren laburpena</p>	
<p>Automozioaren sektorearen maskulinizazio-prozesua dela tarteko, eta horrek ingurumenean zer-nolako inpaktua duen kontuan hartuta, bi gaiak Garapen Jasangarrirako Helburuak aintzat hartuta lantzea proposatzen du proposamenak, eta hori Don Bosco Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuko automozio-zikloko goi-mailako 1. eta 2. mailetan egitea. Horrekin batera, gaur egun nagusi den sistemak eragiten dituen desberdintasunez kontzientzia ere bada proiektuaren helburua. Horretarako, zenbait jarduera proposatzen dira, denak ere Oinarriko Curriculum Diseinuko helburu tekniko eta transbertsalekin eta Giza Garapenerako 5., 6., 10., 11. eta 13. Helburuekin estu lotuta. Zehazki:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikasgelarako jarduerak: <ul style="list-style-type: none"> ◦ Klima-aldaketaz kontzientziatzeko saioak, eta sektoreko profesionalak garen aldetik, baita guk guztiok horretan dugun erantzukizunaz ere. ◦ Ingurumena babesteko araugintzari buruzko saioak, teknika berriei buruzko ikerketa-lana eta proposamen berritzaileen aurkezpena. ◦ Hondakinen kudeaketa. ◦ Gas-isurketa eta energia-kontsumoa: ibilgailu ekologikoak, prezioak, efizientzia, Ebren 50/50 ekimena. ◦ Genero-ikuspegia: emakumezko pilotu baten hitzaldia, hobekuntza-proposamenak (taldeka). • Jarduera praktikoak: <ul style="list-style-type: none"> ◦ Praktikak zer enpresatan egin behar diren, bertan ingurumena babesteko eta/edo genero-berdintasuna bermatzeko hobekuntza-plan baterako proposamena. ◦ Autoak konpontzeko hiruhilekoko lantegiak, emakumeek eta zailtasun ekonomikoak dituzten pertsonak bertan parte har dezaten. Bukaerako lantegian, abandonatu eta konpondutako auto bat emango zaio sinbolikoki maila sozioekonomiko apaleko familia bati. Jarduera hau 1. eta 2. mailako ikasleek batera egitekoa da, eta beste entitate batzuek ere parte har dezakete (kontzesionarioak, administrazio- eta finantza-zikloetako ikasleek, gizarteratze-zikloetakoeak, eta emakumeak ahalduzko eskolakoeak). 	
<p>Landutako kontzeptuak</p>	<p>Tartean dauden ESSren printzipioak²</p>
<ul style="list-style-type: none"> • Moduluko eduki teoriko eta teknikoak. • Komunikazio- eta harreman-teknikak. • Genero-berdintasuna (5. GJH). • Edateko ura eta saneamendua (6. GJH). • Desberdintasunak murriztea (10. GJH). • Hiri eta komunitate jasangarriak (11. GJH). • Klima babesteko ekintzak (13. GJH). 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ekitatea: printzipio horren barruan, aipatu beharrekoa genero-berdintasuna da, eta horri buruz kontzientziatu beharra ere bai, bai lantegiak ematean, bai enpresen hobekuntza-planetan inklusioa lantzean. 2. Lana: gizarte-premiak asetzeko jardura den aldetik; kasu honetan, zailtasun ekonomikoak dituzten pertsonentzat eta emakumeentzat prestatuko autoak konpontzeko lantegietan egin beharrekoa. Gainera, talde-lana ere sustatuko da, elkarrekin erabakiak hartuz eta denen parte-hartzearekin antolatutako jarduerak eginez. 3. Ingurumen-jasangarritasuna: proposamenaren giltzarria da hau, eta sektoreak duen inpaktuaz gogoeta egin, ikertu eta alternatibak proposatu beharra dakar. 4. Lankidetzta: eragileen arteko sinergia eta elkarlana bultzatzea behar-beharrezkoa da. 6. Inguruan ditugunetikiko konpromisoa: gertuen ditugun sektore kaltetuenerikiko solidaritatea sustatu behar da.
<p>Ebaluazio-sistema:</p> <p>Talde-lanaren koebaluazioa irakasleekin batera, eta bakarkako lanarena, irakasleek bakarrik. Irizpideak: gaitasun teorikoak, gaitasun transbertsalak, Giza Garapen Jasangarrirako trebetasunak.</p>	

² REAS Ekonomia Solidarioaren Printzipioen Gutunean (2011) ageri diren printzipioen arabera.

<p>EZ EZAZU ARRASTORIK UTZI</p>	<p>Erronka honen barruan dago: Ekonomia Sozial eta Solidarioarekin eta Giza Eskubideekin lotutako ekitaldiak antolatzea (Zubiri Manteo).</p>
<p>Ideia ren laburpena</p>	
<p>Ingurumenaren Egunerako ekitaldi jasangarri bat prestatzea eta egitea da proposamenaren muina. Ekitaldian askotariko jarduerak egingo dira, denak ere gaur egungo egoeraz kontzientziatzearekin lotuta, eta horrekin batera, kausak aztertzeari eta alternatibak planteatzeari ere garrantzia emango zaio.</p> <p>Ekitaldia bi gunetan egingo da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ikastetxean bertan: <ul style="list-style-type: none"> ◦ Talde ekologista bateko aditu baten hitzaldia. ◦ Birziklart lantegia: materialak nora berrerabili lantzeko jarduera artistikoa. • Auzoko Kultur Etxea: <ul style="list-style-type: none"> ◦ Shock-jarduera eta aurkezpena. ◦ Zenbait gai eta ikuspegiri buruzko standak: kontzientziazioa (plastikoei buruzko lantegia), gogoeta (klima-aldaketari buruzko debatea) eta bizipenak (itsasoari buruzko lantegia). <p>Ekitaldiak izaera itxia dauka eta, partaide-kopurua (92 lagun) eta inklusiboa eta elebiduna izateko nahia kontuan hartuta, bi talde osatu dira (euskaraz eta gaztelaniaz), eremu batetik bestera jarduerak eginez igaro daitezten.</p> <p>Komunikazioari dagokionez, alderdi hauek nabarmendu behar dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Logoa eta kartela. • Instagram. • Jendea kartelen bidez gonbidatuko dugu, baina baita gelaz gela abisua utziz ere. • Ikasleei hainbat galdera bidaliko zaizkie mezu elektroniko bidez, jarduera testuinguruan jarri eta gogoeta egin dezaten. <p>Antolatzaileek arreta berezia jarriko diote jardueraren bideragarritasun tekniko, ekonomiko eta teknologikoari, bai eta jasangarritasunari ere, bai ahalik eta hondakin gutxienak sortzeari dagokionez eta bai erosketak bertako dendetan egiteari dagokionez, hautatutako gaiaren eta ekitaldiaren martxaren artean koherentzia erabatekoa izan dadin.</p>	
<p>Landutako kontzeptuak</p>	<p>Tartean dauden ESSren printzipioak</p>
<ul style="list-style-type: none"> • Arrasto ekologikoa: ura, plastikoak. • Klima-aldaketa. • Birziklatzea eta berrerabilera artearen bidez. 	<ol style="list-style-type: none"> 2. Lana: ekitaldien kudeaketan eta talde-lanen antolaketan tartean dauden sail eta zereginen ugaritasuna dela tarteko, pertsona edo ordezkari bat izango du bakoitzak, berdintasun-irizpideetan oinarrituta eta pertsona bakoitzaren gaitasun eta trebetasunak aintzat hartuta hautatua. Landuko den gaia modu gardenean hautatuko da, eta horretan, talde eta ikasle guztien parte-hartzea bultzatuko da. 3. Ingurumen-jasangarritasuna: proposamenaren giltzarria da hau, eta gure arrasto ekologikoaz, klima-aldaketaz eta horri guztiari aurre egiteko gure jokabide eta ekintzez kontzientziatu beharra dakar. 4. Lankidetzatza: eragileen arteko lankidetzatza bultzatuko da (Kultur Etxeen artekoa, bertako talde ekologisten artekoa...). 6. Inguruan dituguneko konpromisoa: bertako dendetan erostea bultzatuko da.
<p>Ebaluazio-sistema:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ekitaldian parte hartzen duten pertsonen balorazioa: <ul style="list-style-type: none"> ◦ Ikasleek (euskarazko zein gaztelaniazko taldeetakoek) lantegi bakoitza baloratuko dute modu orokorrean (oso ongi, ongi, oso gaizki), berrerabilitako tapoiak erabiliz. ◦ Kultur Etxeko jardueretan parte hartu duten pertsonen balorazio-inkesta bat bete beharko dute. • Antolatzaileek, hasierako xedeak aintzat hartuta, beren lana, lorpenak eta prozesua (denbora kudeatzeko modua, komunikazioa, taldeko kideen arteko konpromiso-maila...) autoebaluatuko dute. 	

<p style="text-align: center;">ZAPALDUON ANTZERKIA ETA EKONOMIA SOZIAL ETA SOLIDARIOA</p>	<p>Erronka honen barruan dago: Giza Eskubideekin eta Erantzukizun Sozial Korporatiboarekin lotutako jarduerak antolatzea (AEG Berrikuntza Profesionalen Eskola).</p>
<p>Ideia-aren laburpena</p>	
<p>Ikasle-talde batekin Ekonomia Sozial eta Solidarioarekin lotutako kontzeptu teorikoak lantzea da kontua, eta hori Zapalduon Antzerkia pedagogia-ereduaren bitartez egitea, eskolan denek ikusteko moduko antzezlan bat prestatzea helburu hartuta.</p> <p>Zapalduon Antzerkiak ikasteko bide ugari marratzen ditu, baina ikaskuntza kolektiboa lehenesten da: bizipenen bidez subjektuek rol aktibo bat hartzea, eta horrekin batera, hizkuntza, emozioak, keinuak, erritmoa eta espazioa berariaz erabiltzea. Hauxe da antzerki bidezko pedagogia horren mamia: “Zapalduon Antzerkia praktika sistematiko bat da, ariketa fisikoetan, jolas estetikoetan eta teknika berezietan oinarritua, problema sozial eta intersubjektiboak ulertzea eta irtenbidea bilatzea helburu duena” (Boal). Estu lotuta dago Paulo Freireren teoriarekin, Zapalduen Pedagogiarekin eta Herri Hezkuntzarekin.</p> <p>Ekimenean gertu-gertutik parte hartu dute Zapalduon Antzerkia eta GIZAT taldeek, AEG eskolak eta MgEk, eta hiru oinarri ditu:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Eskola magistrala, MgEko kideek eskainia. • Lantegiak (4), GIZAT taldeak dinamizatuak, jolas dramatikoaren, irudizko antzerkiaren eta kazetaritza-antzerkiaren tekniketari oinarriturik. • Enpresa-ikasketen alorreko ikasle eta irakasleei egindakoa erakustea antzerki-forum baten bidez. 	
<p>Landutako kontzeptuak</p>	<p>Tartean dauden ESSren printzipioak</p>
<ul style="list-style-type: none"> • Lankidetzaren – Lehiakortasuna • Enplegu duina – Enplegu prekarioa • Enpresa tradizionala – ESSn oinarritutako enpresa • Kontsumo arduratsua – Kontsumismoa • Pobrezia energetikoa 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ekitatea: hauxe da Zapalduon Antzerkiaren funtsa, zapalketak salatzen dituen jarduerak bat den aldetik. Jardueran parte hartzen duten ikasleak subjektutzat hartzen dira, eta denek duintasun bera aitortzen zaie. Gainera, apustu egiten da garapen integrala lortzearen alde, bakoitzaren gaitasun kritiko eta artistikoak ikusaraziz eta sustatuz. Gainera, printzipio hori lantzeko, gaur egungo zenbait arazo ere eztabaidatuko dira, hala nola TTIP ituna, langileak hautatzeko prozesuak, jarrera sexistak eta estereotipoak. 2. Lana: enplegu duin eta prekarioaren arteko aldeez kontzientziatu beharraz hausnartzea da kontua, bai eta enpresa tradizionalen eta Ekonomia Sozial eta Solidarioaren printzipioak nola enfokatu eta antolatu asmatzea ere. Gainera, talde-kohesioa sustatu behar da, eta parte-hartze inklusiboa ere bai. 3. Ingurumen-jasangarritasuna: kontsumismoaz eta pobrezia energetikoz gogoeta egin beharra. 4. Lankidetzaren: eragileen arteko elkarlana, ekimena martxan jartzeko.
<p>Ebaluazio-sistema:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Ekimenean parte hartu duen taldearen tutoreak DAFO azterketa baten bidez egingo du ebaluazioa. • Ikasleek ideia-jasa bat egingo dute (tutoreak dinamizaturik). • Dinamizatzaileen oharrak: DAFO azterketa eta hobekuntza-proposamenak. 	

<p>TXOTXINTXO MUNDUAN KOOP.</p>	<p>Erronka honen barruan dago: Ekintzailletza-lehiaketa (EASO Politeknikoa).</p>
<p>Ideiaaren laburpena</p>	
<p>Euskal Herrian eskuz fabrikatutako txotxongiloen kooperatiba bat sortzea da helburua, eta txotxongilo-ikuskizunak antolatzea ere bai, horrek hezkuntza-eraldaketan dihardutenei lagundu diezaien. Ekimenak alderdi hauek ditu aintzat hartzekoak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Izaera integrala: produkzioa-salmenta-ikuskizuna. • Pertsonaia ez-tradizionalak sortzea. • Hainbat tamaina, material eta ezaugarritako txotxongiloak egitea. <ul style="list-style-type: none"> • Ikuskizunetan balioak jolas moduan transmititzea (genero-berdintasuna, kultura-aniztasuna, premia bereziak). • Bertako elkarte batek gizarteari bere ekarpena egitea. <p>Proposamenean banaketa-, merkaturatze- eta zabalkunde-bideak deskribatzen dira:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Internet bidezko salmenta, ikuskizunetan bertan eta Ikasenpresa eta Ekingunek salmenta-puntuetan. Salneurriaren azterketa: prezioak gastuetara egokitu behar dira, baina lehiakorrak izan behar dute. • Katalogo profesionala, txartelak eta aurkezpen-triptikoak prestatzea, sare sozialen bidez ikuskizunen berri ematea eta irrati-telebistetarako iragarkiak sortzea. • Kultur Etxeekin batera ikuskizunak antolatzea. 	
<p>Landutako kontzeptuak</p>	<p>Tartean dauden ESSren printzipioak</p>
<ul style="list-style-type: none"> • Ekonomia Sozial eta Solidarioaren printzipioetan oinarritutako gizarte-ekintzailletza. • Baliabideak: merkatu-azterketa, logoa, CANCAS SOZIALA, finantza alternatiboak, banaketa-, merkaturatze- eta zabalkunde-bidea, errentagarritasun eta bideragarritasun-analisia. 	<ol style="list-style-type: none"> 1. Ekitatea: printzipio horren barruan, aipatu beharrekoa genero-berdintasuna da, eta horixe transmititu behar da ikuskizunetan, gizarte sexista honi aurre egiteko. 3. Ingurumen-jasangarritasuna: txotxongiloak bertan egiten direnez, kontsumo arduratsua sustatzen da. 4. Lankidetzatza: eragileen arteko lankidetzatza bultzatuko da (Kultur Etxeen artekoa). 6. Inguruan ditugunekiko konpromisoa: batetik, txotxongiloak bertan egingo direlako; bestetik, gizarte-ekarpena (% 10) bertako elkarte bati egingo zaiolako.
<p>Ebaluazio-sistema:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Taldeek bi txantiloiren bidez autoebaluatuko dute beren lana, eta bi alderdi hartuko dituzte aintzat: <ul style="list-style-type: none"> ◦ Proposamenak gizarte-ekintzailletzarekin eta/edo ekimen solidarioekin duen lotura. ◦ Proposamenaren bideragarritasuna. • MgEk lehiaketan ezarritako irizpideen arabera aztertuko ditu proposamenak. 	

Balorazioa

Balorazio honi ekiteko, kontuan hartuko dugu, lehenik eta behin, ea hasieran ezarritako helburuak bete ditugun ala ez. Ekar dezagun gogora zein zen gure helburuen mamia: batetik, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren printzipioak, eta bestetik, zuzenean nahiz zeharka, Giza Garapen Jasangarria. Hurrengo lerroetan gure proiektuetan parte hartu duten ikasleen balorazioen berri emango dugu. Azkenik, MgEren ondorioak laburbilduko ditugu, eta Lanbide Heziketan Ekonomia Sozial eta Solidarioa sustatze aldera erronketan oinarritutako lankidetzaren metodologia aplikatzeari buruzko gure emaitzen berri emango.

■ HELBURUEN ARABERA

Gogora dezagun erronka guztietan helburuak, xehetasunak xehetasun, bertsuak zirela; hauek, alegia:

A) Giza Garapen Jasangarria zer den jakitea, eta hura Ekonomia Sozial Sozial eta Solidarioan, Giza Eskubideetan, 2030 Agendan eta Garapen Jasangarrirako Helburuetan oinarritzea.



B) Bizi garen mundua modu kritikoa aztertzeko gaitasunak hobetzea, erronkak aintzat hartuz, eta horretarako, sistema neoliberalak gizartean, ekonomian eta ingurumenean zer-nolako inpaktua duen azterzea; enpresen arteko aldeak ikertu, eta Erantzukizun Sozial Korporatiboarekin lotutako neurri eta/edo politiken berri jakitea; bertako eta mundu globaleko errealitatearen artean zer-nolako loturak dauden ikustea; eta hezkuntzak zer-nolako rola jokatzen duen eta zer alternatiba dauden ohartzea.

C) Gaur egun egungo eredu gaitzetzeko proposamen kolektiboak proposatzea, Ekonomia Sozial Solidarioa aintzat hartuta: ekitaldiak, enpresak, jarduerak, metodologiak, etab.

D) Genero-ikuspegia transbertsalizatu beharraz jabetzea.

E) Kontzientziazio- eta mobilizazio-gaitasunak areagotzea.

Oro har, argi samar esan dezakegu helburu horiek guztiak bete ditugula, baina zehaztu dezagun orain hori nola egin dugun:

A) Ekonomia Sozial eta Solidarioak Giza Eskubideei zer ekarpen egiten dien jakitea.

Esperientzien ondoren, gure proiektuetan parte hartu duten ikasleek Ekonomia Sozial eta Solidarioa zer den badakitela argi samar esan dezakegu, eredu hori tartean baitago, gutxi-asko eta gorabeherak gorabehera, proposamen guzti-guztietan; zehatz esatera, ingurumen-jasangarritasuna, inguruarekiko konpromisoa, lankidetzaz eta entitateen arteko lankidetzaz dira eredu horrekin estuen lotuta dauden alderdiak. Ekitatearen printzipioa ere kasu gehienetan aplikatzen da, ikasleen kezka oso argi baitaude: gertueneko jendearen arteko desberdintasunak, emakumearen kontrako diskriminazioa, hegoaldeko herrialdeen errealitate gordina...

Gainera, lanaren printzipioarekin lotutako alderdi batzuk –talde-lanak, zereginak eta arduradunak aukeratzea, epeak, taldeen arteko koordinazioa, ebaluazioa eta hobekuntza– oso zehatz lantzen dira. Hori gutxi ez, eta proposamen batzuek erabakiak hartzeko prozesuari ere egiten diote erreferentzia.

Irabazi asmorik gabekoa izatearen printzipioari dagokionez, nahaste ugari egon dela ikusi dugu. Badirudi jendeak doan egiten den boluntario-lanarekin lotzen dituela jarduera sozial eta solidarioak, halakoek diru-sarrerarik sortu eta beren bideragarritasun-planetan gasturik aintzat hartu behar ez balituzte bezala, edota antolakuntzazko egituren beharrik ez balute bezala, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren printzipioak txertatzeko (oso gutxitan zehazten dira karguak, ordutegiak, ordainsariak, jabetzak, inbertsioak, berdintasuna, forma juridikoa, etab.). Horren ondorioz, zaila da Ekonomia Sozial eta Solidarioa eredu hegemonikoa gaitzetzeko alternatiba erreal gisa identifikatzea, enpresa-ekimenak sortzeko eta ekonomia dinamizatzeke gaitasunik ez balu bezala. Oro har, uste dugu alderdi garrantzitsu horren azpian lan-mundua gaizki ezagutzea ezkututzen dela nagusiki eta batez ere.

B) Analisi kritikorako gaitasunak hobetzea.

Proposamenen testuinguru eta justifikazioetatik abiatuta, ikasleek beren gaitasun kritikoa hobetu dutela ondoriozta daiteke. Irakasleak ere iritzi berekoak dira: ikasleek dezente zorrotz dutela gerora landu beharreko gaiei buruzko ikuspuntu kritikoa. Proposamen gehienek, bertako eta mundu globaleko errealitateen arteko aldeak


aztertuz, produkzio-, merkaturatze- eta kontsumo-eredu hegemonikoa lantzen dute, pobrezia energetikoa, sexismoa kultura globalean, desberdintasun sozialak, eta enpresa-mota bakoitzak gizartean eta ingurumenean zer-nolako inpaktua duten.

Beraz, kasu guztietan proposatutako ideien jatorria gertueneko gizarte- eta/edo ingurumen-arazoak dira, baina dinamika globalekin estu loturik daudenak den-denak. Askotan antzematen da ikasleek kezka espezifikoagoak ere badituztela, eta beren proiektuak ikuspegi pedagogiko alternatiboak eta balioetan heztearekin lotutako printzipioetan oinarritu nahi dituztela. Aldi berean, beren negozioaz edo/eta jardueraz egindako proposamenetan, tartean egon ohi da Ekonomia Sozial eta Solidarioaren printzipio bat edo beste: irabazien parte bat herrialde pobretuei ematea, ikastetxe eta inklusio sozialeko zentroetan boluntario-lana egitea, pertsona gaixoeekin lan egiten duten elkarteei laguntzea, etab. Horrek guztiak agerian jartzen du ikasleak kontzientziatuta daudela bai herrialde pobretuen egoeraz eta bai kolektibo zaugarrienetako pertsonenaz.

C) Proposamen kolektibo alternatiboak proposatzea.

Proiektuetan, gainera, aztertzen den errealitatea gainditzeko alternatibak ere proposatzen dira. Zehazki esanda, proiektuak modu kolektiboan egiteak kontzientzia pizteko eta alternatibak proposatzeko baliabide pedagogiko bihurtzen ditu, individualismotik eta lehiakortasun itsutik urruntzen diren balio eta erlazioak sustatzen dituztenez gero. Irakasleek diotenez, talde-kohesioa nabarmen hobetu omen da, bai eta moduluko beste taldeekiko harremana ere, eta denek lortu omen dute lan-autonomia eta lankidetzarako gaitasun handiagoa.

Aurkeztutako proiektu gehienetan Garapen Jasangarrirako Helburu hauek hartzen dira oinarri:



Eta hona hemen proposamenetako batzuen muina: dieta eta kirol osasungarria, homofobia, sexu-heziketa eta sexu-identitatea, lan-mundura nola sartu, pobrezia nola murriztu, lan-baldintzak, mendeko pertsonen zaintza-lanak, ehunen kontsumoa, olioia nola birziklatu, 0 Km-ko sareak, bazkari osasungarriak, produktu ekologikoen produkzioa eta merkaturatzea, haize-errotak, pobrezia energetikoa –berrikuntza teknologikoa, karbono-arrastoaren murrizketa.

Proposatutako ideia gehienetan nabarmen da ikasleek zer-nolako esfortzua egin duten beren proiektua martxan jartzeko elementu guzti-guztiak aintzat hartzeko, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren printzipioekin bat etorritz. Goraxeago esan dugunez, talde guztiek jokutzen dute berdintsu zer gai hautatu eta gai hori nola landu erabakitzerako garaian. Eta lan egiteko moduan ere aintzat hartzen dituzte printzipio horiek, eta lankidetzeta-egiturak erabiltzen dituzte. Proposamen batzuek zer material eta fabrikazio-prozesu erabili ere oso kontuan izan dute: material guztiak naturalak izatea, eskuz landuak, bertan eginak... Oro har, beraz, kontsumo arduratsua sustatzen da, argi eta garbi.

Hala eta guztiz ere, proposamen bakar batek ere ez du ikertu ea beren hornitzaileek bat egiten duten ala ez Ekonomia Sozial Solidarioaren printzipioekin edo Erantzukizun Sozial Korporatiboarekin. Eta enpresak sortzearekin lotuago dauden proiektuei dagokionez ere, MgEren aurkezpen- eta azalpen-saioak gorabehera, inork ez du Canvas Soziala erabili, eta finantza alternatiborik ere ez da aipatu ere egiten.

Azkenik, ekimenak martxan jartze aldera eragile guztiek elkarrekin lan egin beharri dagokionez, ikasleek eragile hauek aipatu ohi dituzte: Kultur Etxeak, bertako merkatarisarea (jarduerarako materiala eskuratzeko), Bidezko Merkataritza (sarietarako), Tabakalera (grabazio-jardueretarako), GKE eta lekuan lekuko elkarteak (hizlari modura eta dohaintzen hartzaile gisa), Emakumeen Etxea, LHko beste zentro batzuk, etab.

D) Genero-ikuspegia transbertsalizatu beharraz jabetzea.

Genero-ikuspegia ez dago modu homogeneoan transbertsalizatzerik. Jardueren eta ekintzen % 42k, metodologia-proposamenen % 36k eta ekintzailtza-proposamenen % 11k erdigunean jartzen dute emakumeek pairatzen duten diskriminazio-egoera, eta horri aurre egin beharra azpimarratzen duten.

Gainerako proposamenetan ez da genero-ikuspegia esplizituki aipatzen, eta ez da planteamendu transbertsalik proposatzen merkatu-azterketa egiterakoan, edota ekintzak eta zabalkunderako materialak definitzerakoan, edota lana nola antolatu erabakitzerakoan. Talde gehienak mistoak dira, baina ez da esplizituki erabakitzen zer mekanismo edo irizpide jarriko diren martxan parekotasuna eta lan-banaketa zuzena bermatzeko (bai horizontalki, bai bertikalki). Hala ere, taldeko kideak zaintzeren aldeko jarrera orokorra da (denei bermatzen zaie erabakiak hartzeko eskubidea izango dutela, elkar laguntzen dute, taldek bata bestearekin kooperatzen dute, etab.), eta jardueretan parte hartzen dutenen pertsonak ere aintzat hartzen dira (kontuan izaten da egoera berezian dauden ala ez, hizkuntzak kudeatzen dira, ekimenaren fase bakoitzean denen inplikazioa bilatzen da, etab.).

E) Kontzientziazio- eta mobilizazio-gaitasunak areagotzea.

Gure ustez, ekintzailtza-ekimenak eta kontzientziazio-jarduerak martxan jarri ondoren, ikasleek ederki ulertu dute zer-nolako lotura dagoen lan-munduaren eta bertako nahiz mundu globaleko errealitateen artean, eta horrek nabarmen errazten du tartean daudenak nor bere erantzukizunaz kontzientziatzea. Horrek, aldi berean, besteak kontzientziatzeko norberak duen gaitasunez jabetzen ere laguntzen du, eta inpaktua izan dezaketen ekimenetan zer elementu hartu behar liratekeen aintzat jakiten ere bai. Oro har, inguruan modu positiboan intziditu nahia bultzatzen da.

Landutako proposamenek zabalkunde-kanpainak egin dituzte hedabide eta sare sozialetan, ekimenak merkatuetan aurkeztu dira, kontzientziazio-materialak diseinatu eta sortu dituzte (logoa, kamisetak, kartelak, txartelak...), denetariko jarduerak programatu dituzte (lantegiak, lehiaketak, hitzaldiak, bideo-proiektzioak, zozketak, debateak...), gizarte-eragileen arteko sinergiak eta loturak irun dituzte, kontzientziazioa arte-adierazpenekin uztartu dute, etab. Eta, batez ere, proposamenetan parte hartu duten irakasle, ikaskide, guraso, bizilagun, gizarte-talde, kolektibo zaurgarri eta, oro har, parte-hartzaile guztien inplikazioan jarri dute azpimarra: denek ekimenaren fase bakoitzean (ideiak definitzeko orduan, ebaluazio-fasean, jarduera dinamikoetan, etab.) buru-belarri parte hartu izana, alegia.

■ IKASLEEN BALORAZIOA

Lehenik eta behin, gure saioetan parte hartu duten LHko eta unibertsitateko ikasleen balorazioak aurkeztuko ditugu, eta horretan, Ekonomia Sozial eta Solidarioa erronketan oinarritutako metodologiaren bidez lantzeko modua aztertuko dugu. Balorazio gehienak onak izan dira, eta denen iritziz, proposamena polita da, eta lan-mundura hurbiltzen eta sakonago ikasten laguntzen du.

Desberdina, interesgarria, entretenigarria, pentsarazten duena, gaiei beste ikuspuntu batetik heltzen laguntzen duena, konplizitatea, femeninoa erabiltzeak harritu egiten du.


Masterreko ikasleen ustez, ekimenak agerian jartzen du posible dela Ekonomia Sozial eta Solidarioa modu praktikoan txertatzean LHn, ezagutzen garapena eta gaitasun tekniko eta transbertsalak uztartuz eta ikuspegi soziala bistatik galdu gabe. Metodologia konstruktibista, aktibo eta dialogikoek pertsonen garapen integrala errazten dute, eta horrek ikaskuntza adierazgarria izatea eragiten du, eta komunitatearekiko konpromisoa areagotzen.

Alde horretatik, ikasleek argi dute hobe dela gure metodologia erdi-mailako eta goi-mailako graduatan aplikatzea, hor heldutasun-maila handiagoa delako eta, gainera, beren ikasketen puntu horretan ikasleak lan-mundura jauzi egitear daudelako. Ikasleek prestakuntza-modulu guztietarako jotzen dute ontzat metodologia: administrazio- eta finantza-moduluetarako, merkataritza- eta marketin-moduluetarako; automatizazio- eta robotika-moduluetarako; instalazio termikoen eta isurkien mantentze-lanei

buruzko moduluetarako; pertsonen zaintza-lanei buruzko moduluetarako; lorezaintza-eta loradenda-lanei buruzko moduluetarako; basoen eta natura-ingurumenaren kudeaketa-lanei buruzko moduluetarako; nekazaritza eta abeltzaintzako produkzio-lanei buruzko moduluetarako, etab. Gainera, zentro guztiena rteko lotura dela tarteko, bat dator dagoeneko ETHAZI programa edo antzeko ereduak aplikatzen ari diren zentroen martxarekin. Azkenik, modulu jakin bateko ikasgai jakin baterako unitate didaktiko gisara ere planteatu liteke metodologia, edota enpresa-simulazioak egitea oinarri duten ikasgaietan erabiltzeko baliabide gisara.

Gainera, ekintzailtza-proposamenak sortu eta aurkeztu dituzten ikasleek beste bi alderdi espezifiko aipatu dituzte:

- Proposamenen izaera sozial eta/edo solidarioa. Denek erantzuten omen diote arazo edo premia sozial bati. Asko eta asko proposamen solidario gisa definitzen dira, edo estu lotuta daude ekimen solidarioekin. Ikasle gehienek iritziz, proposamenek gertuko jendea kontzientziazteko balio dute. Gainera, alde edo moldez, denak sartzen dira gizarte-ekintzailtzaren zakuaren barruan.
- Proposamenen bideragarritasun eta/edo errentagarritasuna.
 - Parte-hartzaileen % 77ren iritziz, beren proposamenak teknikoki eta ekonomikoki bideragarriak dira, bai eta errealistak, soilak, egingarriak eta errentagarriak ere. Ekimenetako biren egileek baino ez dute zalantzan jarri beren proposamenaren bideragarritasun ekonomikoa, dela salmentek zerbitzua doakoa izatea segurtatuko dutenik uste ez dutelako, dela hasierako inbertsioa eta/edo bezero gehiago lortzeko denbora eskasa dela uste dutelako. Ekimenetako hiruren egileek beren plangintzetan aintzat hartu dituzte funtzionamendurako eta langileak kontratatzekeo gastuak.
 - Beren ekimenak errentagarritzat dituztenek ekintza sozialak dakarren gogobetetasun pertsonalari irizten diote errentagarritasun horren iturri.
 - Talde batek bakarrik uste du beren negozioak martxan jarraituko duela. Gainerakoek ustez, negozioak funtzionatu zein ez, ekimena bertan behera utziko lukete, dela denborarik ez dutelako, dela momentuan negozio horri denborarik eskaini nahi ez diotelako, dela taldeko kide bakoitzak bere bideari ekin nahi diolako.



Azkenik, ekitaldi eta/edo jarduerak antolatzeko proposamenak aurkeztu dituzten ikasleek honako balorazio hauek egin dituzte:

- Analisisirako gaitasuna areagotzeari dagokionez: horrek ideia asko sortzea dakar, eta konplikatu ere izan daiteke hori gaia eta proposamen-mota hautatzeko eta ideiak gaiaren arabera lotzeko. Aldi berean, baina, gai eta arazo asko elkarri estu lotuta daudela ikusaraz diezaguke horrek, eta ustez gertukoa dena eta ustez urrutikoa dena bata bestearekin uztartuta daudela ulertzeko ere bai. Normal eta eguneroko jotzen ditugun gauza askoren atzean prozesu konplexuak ezkututzen dira, desberdintasun ugari eragiten dituztenak.
- Alternatibak modu kolektiboan proposatzeari dagokionez: denek dute garrantzizkotzat komunikazioa (besteen ideiak aintzat hartzea, erabakiak hartzeko mekanismoak sortzea eta zeregin espezifikoak daudenean taldeen arteko informazio-/komunikazio-fluxuak erregulatzea, horrek denen arteko koordinazioa berma dezan); komunikazioa ez ezik, antolaketa ere garrantzitsutzat dute (inprobisatzen eta saialdiak egiten jakitea; kronogramak egitea eta zeregin txikietarako arduradunak hautatzea; aurrerapausoei buruzko akta bat idazte egunero; enpresa hornitzaileen konpromisoen jarraipena; etab.). Aurreko puntuan esan dugu ikasleek analisisirako gaitasun handiagoa eta gaien arteko loturei buruzko kontzientzia handiagoa lortu dutela, eta plangintzaren eta antolaketaren alorrean ere antzeko zerbait esan liteke: aintzat hartu beharreko alderdiei eta alderdi horiena arteko loturei buruzko kontzientzia nabarmen areagotu dela, alegia.
- Lankidetzaren printzipioari dagokionez: denek nabarmentzen dute zeinen zaila den norke parte hartuko duen aurreikustea, zer pertsonak eta zer entitatek, baina denek dute garrantzizkotzat dinamizazio-eta/edo azalpen-trebetasunak martxan jartzea (gertuko datu eta kasuak aipatzea, bertakoak eta gaur egungoak, eta gai globalei buruzko esplikazio argiak ematea). Ekitaldiak antolatzeko guneak aurkitzea oso zaila dela ere aipatu izan dute batek baino gehiagok.

■ ONDORIOAK

Oro har, argi esan dezakegu ikasle, irakasle eta gizarte-eragileei oso erakargarria, pizgarria eta eraginkorra iruditu zaiela erronketan oinarritutako lankidetzaren metodologia. Denen iritziz, metodologia hori gaitasun handiaren bidez Heziketan martxan jartzekoak diren hezkuntza- eta kontzientziazio-prozesuei ganoraz heltzeko. Alde batetik, edukiak modu diferentean lantzen dituelako, modu aplikatu eta gertukoan, eta konpetentzia eta gaitasun indibidual eta kolektiboetan jartzen duelako azpimarra: konpetentzia eta gaitasun akademiko, kognitibo eta artistikoetan, gogoetan eta antolaketa-kontuetan... Kontzientziazioari eta eraldaketarako alternatiben proposamenari dagokionez, horrek aukera aparta ematen du denetarikoa pertsonenengana hurbiltzeko eta harremanak josteko, inplikazioa eta solidaritatea pizten direnez gero.

Fruituak oparoak izango badira, dena den, MgEko kideon eskarmentuan oinarrituta esan dezakegu elementu hauek ere aintzat hartu behar direla:

- Zentroetako zuzendari eta irakasleek buru-belarri inplikatu behar dute proiektuetan, hasiera-hasieratik, eta egiten dena ikasketa-planean guztiz txertatu.

- Entitate antolatzaileek (MgEk, zentroak, antolatzaile, dinamizatzaile eta/edo laguntzaileek) ondo koordinatu behar dute beren lana: horrek komunikazio-fluxuak ezarri, kronograma bat markatu, eta lanean hasi aurretik eta lana bukatu ondoren balorazio bat egin beharra dakar gutxienez.
- Baliabide egokiak bildu behar dira: denbora nahikoa eta gune egokiak, batez ere.
- Ekitaldi eta jardueretan, oreka bilatu behar da egun jakin batean ekintza publikoak antolatzearen ondorioz sor litezkeen tentsioen eta pizgarrien artean.

Ekonomia Sozial eta Solidarioaren printzipioak ikasleen proposamenetan (negozio, metodologia, jarduera, ekitaldi...) are gehiago txertatzeari dagokionez, komenigarria litzateke talde-lanari buruzko aurkezpen- eta jarraipen-saioetan elementu hauetan jartzea azpimarra:

- Irabazi asmorik gabekoa izateari buruzko printzipioa: horrek forma juridikoari dagokionez zer inplikazio dituen, gastu eta sarrerak, lanaldia, bideragarritasuna, etab.
- Genero-ikuspegia eta ekitate-printzipioa, emakume eta gizonen arteko berdintasunari dagokiona batez ere: ikuspegi transbertsala testuinguruari eta merkatuari buruzko azterketetan, ideiaren definizioan, eta hura martxan jarri ondorengo ebaluzioan. Lana antolatzean, gainera, zeregin eta erantzukizunen banaketan, eta dinamiken, guneen eta denboren diseinuan, elementu giltzarria dela aipatu behar da esplizituki.
- Kate osoaren garrantzia: entitate hornitzaileak, finantza-entitateak, saltzaileak, laguntzaileak, erabilitako edo sortutako materialen hornitzaileak, etab. Enpresa bat edo jarduera bat definitzean edo martxan jartzean, tartean dauden eragile guztiek Ekonomia Sozial eta Solidarioaren printzipioak aplikatzen dituztela bermatu beharko litzateke, bakoitzak gizartean eta ingurumenean zer-nolako inpaktua eragiten duen aintzat hartuz.

Aldez edo moldez, MgEk aintzat hartuko ditu hobekuntza-proposamen horiek guztiak, eta 2019-2010 ikasturtean bertan hasita, gainera. Ikastetxe eta zentroi aukera eman behar zaie ikasgelan bertan Canvas Soziala modu espezifikoan lantzeko. Horrek, negozio, ekitaldi edo jarduera antolatzean Canvas Sozialarekin lotutako galderetatik abiatzeak, Ekonomia Sozial eta Solidarioaren printzipio guztiak hobeto ulertzea, barneratzea eta aplikatzea eragin dezake, inolako zalantzarik gabe. Modu osagarrian, MgEk badu Canvas Sozialari buruzko eskuliburu bat, eta hura kontsultatzea izan liteke onena.

Gazteen artean Ekonomia Sozial eta Solidarioarekin lotutako ekintzailtza sustatzeari buruzko ikuspegi praktikoa eta esperientziei dagokienez, gainera, nabarmentzekoa da MgE erronketan oinarritutako lankidetzaren metodologiaren metodologia zabaltzekoa dela, eta hori bi modutan egingo dugula, gainera: batetik, masterreko ikasleei aukera emanez DBHko 4. mailako eta Batxilergoko 1. mailako ikasleei beren proposamen metodologikoak aurkez diezazkieten; bestetik, ikuspegi hori Bizkaian egin ohi dituen lan guztietan txertatuz.

Ekonomia Sozial eta Solidarioa nagusi den ekonomia-eredua gaintzeko alternatiba gisa ikusaraztea eta barneratzea da gure helburu nagusia, horrek gizartean eta ingurumenean inpaktu positiboa eragin dezakeela uste baitugu.

Mugarik gabeko Ekonomilariak  Economistas
sin Fronteras

ecosfron.euskadi@ecosfron.org

Tfno: 94 415 34 39

<http://www.ecosfron.org/euskadi>

